

2. Andres Poza Igartza, *Poza lizentziatua*

1530-1595, urduñarra

Komunikazioaren egilea: Xabier Renteria

2.1. Bizitza




“Gaztea zela, familiarekin Anberesera joan zen. Aita 1535tik aurrera Anberesen bizi zen judu kristautua izan zen.

Bederatzi urte eman zituen Lovainako Unibertsitatean eta, gero, armadan sartu eta Luis de Requesens gobernadorearentzat lan egin zuen.

Bertan Jerónimo de Roda historialaria ezagutu zuen. Handik Espainiara joan eta 1570ean Salamancako Unibertsitatean zuzenbidea titulua lortu zuen. Etxera itzuli eta 1583an Bilbon bizi zen, non legelari, Jaurerriaren abokatu eta udal zinegotzia izan zen. 1580ko ekainaren 24an Antonia Olaeta laudioarra ezkondu zen.

Zientifiko zehatza eta poliglota ere izan zen. Frantses, aleman, latin, italiara, ingeles, nederlandera eta euskeraz aritzeaz gain, hizkuntzalaritza, matematikak, astronomia eta nabigazioa landu zituen.” (*Wikipediatik hartutako laburpena*).

2.2. Argitalpenak



“Espainiako Erresumako hizkuntzei buruzko lehenengo liburuetakoa bat idatzi zuen 1587an: *De la Antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*. Bertan euskera penintsulako hizkuntzarik zaharrena dela defendatu zuen eta hebraiera eta grezierarekin batera, toponimo zahar gehienak iturria. Europako hizkuntzalari-tzaren lehendabiziko erromantze hizkuntzen zerrenda bat osatu zuen, Giulio Cesare Scaligerorena baino lehenago idatzita.

Beste lanak:

- Memorial del Licenciado Andrés de Poza solicitando una plaza de asiento en las Indias, 1584.
- Hydrografía la más curiosa que hasta aquí ha salido a luz, en que demás de un derrotero general, se enseña la navegación por altura y derrota, y la del Este Oeste. 1585
- Ad Pragmaticas de Toro et Tordesillas, sive De nobilitate et propietate, 1589. Bertan bizkaitar guztion kaparetasun unibertsala defendatu zuen, Juan García Valladolideko Errege Auzitegi eta Chancilleriako fiskalaren aurka.”

2.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Iberian dauden eta euskerazkotzat zituen hainbat toponimo jaso zituen: *Iturriza, Gargoris, Siloria, Aitona, Escua, Urbico, Lauronia, Uxama, Baratza, Barrutha, Agina, Sura...* Bere ustez iberiar penintsulako toponimiaren hiru iturri nagusiak euskera, hebraiera eta greziera izan ziren. Esaten zuenez, izen bati ez badator latinetik, grezieratik edo "algarabieratik", seguruenik euskal jatorria izango du, baldin eta euskeraz esanahi bat baldin badu. Adibidez "lanza" berba euskeratik etorri behar zuela zioen.

Askotan "vocablo español" esaten dio euskerazko hitzari, hau da, bere ustean, hizkuntza espainola euskera zen, bertako zaharrena delako.

Toponimo askoren izen zaharrak jaso zituen eta horietako asko IRI/ILI osagaia dutela: ILITURGI (Andujar), ILICI (Elche), ILLIBERI edo ELIBERI (Colibre-Katalunia), ILURCI (Gracurris), ILLURCO (Hora-Granada), Iria Flavia (Padron-Galizia), IRIA (Miño ondoko herria-Galizia).

Bere eritziz horietako batzuk euskerarekin lotuta zeuden, hain zuen ere URJA edo IRIA atzizkiak amaitzen direnak: ILACURI, GRACURIS, CALGURIS, BETURIS, BITURIS, BETURIA, IRIA...

ONA atzizkia amaitzen diren toponimoak ere bere ustean euskal jatorrikoak dira: ARJONA, AITONA (Lleida), BARCELONA, PAMPLONA, CHIPIONA, TARRAGONA, ALABONA, ALONA, ALON, BELONA, CAZLONA...

Bi atzizki hauek dituzten herriak penintsula osoan egon zirenez, euskeraren hedapena handiagoa zelan defendatu zuen. Eta hizkuntza kantabroa deitutakoa euskera zela ere esaten zuen, bertako toponimo zaharrak penintsulako beste izen zaharrak bezalakoak direlako.

Grezierazko izena duten herriak ere zerrendatu zituen: ULYSSIPONA (Lisboa) Ulisesen hiria, EMPURIAS / EMPORION, tratu eta merkataritzarako lekua, ASTA (Jerez ondoan), herri hesitua...

Euskal itxurako izen batzuk ere greziar toponimotzat hartu zituen: Achatas (Cabo de Gataren izen zaharra), grezieraz "zaintza" esan nahi omen du.

Senecaren Consolatione liburuaren aipatu bat gogoratu zuen: Korsikako hasierako biztanleak iberiarrak izan zirela eta hizkuntza "kantabriarra" erabiltzen zutela.

Arrigorriagari buruz askotan entzun den proposamena berak egin zuen: odolez bustitako harriak eta haitzak.

Liburuaren atal bat latinez idatzi zuen: "De prisca hispanorum lingua in gratiam eorum". Beste atal batean Bizkaiko 72 elizateak zerrendatu zituen. Eta Historiari buruzko atal batzuk ere idatzi zituen liburuan. Adibidez kantabriarren gerrari buruz pasarte oso interesgarriak agertzen dira: bertan hiru armada erromatar ibili zirela, izua zietela kantabriarrei: "*cantaber indoctus nostra ferre iuda*". Antza, koldarkeriaz borrokatzen zuten soldatu eta legionarioei Kantabriara borrokatzera bidaltzearekin mehatxatzen zituzten: "*Ad bellum Cantabricum*". Eta erromatarrek beste inon ikusi ez zutena: kantabriar bat torturatzen bazuten horrek koplekin erantzuten zien (Pean Cantabricum). Eta Estrabonek idatzitakoa jaso zuen: mutil batek bere aita eta beste batzuk erromatarrek preso hartu zituztenean, errukiagatik, berak aita eta besteak akatu zituen erromatarren torturak jasan edo betiko gatibu bihurtu baino lehen.

Silio Italicok kantabriarrei buruz bertso batzuk idatzi zituen, honela itzulita: Kantabriarrak, gainerako nazioen aldean, gogorren eta garaiezinarena da, gose, egarri eta beroa gehien jasaten dutenak. Armekiko duten zaletasuna harrigarria da...